

BERANGO

gaur

63. ZBKIA 2017KO MAIATZA

BERANGO GAUR HILABETEKARIA
BERANGO GAUR MENSUAL

www.berango.net



Berango
Guztion konpromisoa
Un compromiso común
21

berangokoudala@berango.org



BUCRAAKO EGUNEKO ZENTROAK SAHARAKO ERREFUXIATU ZAHARRENTZAKO ZAINKETA OSASUNGARRIAK BERMATZEN DITU

BERANGOKO UDALAK DIETA OREKATUA BERMATZEN DIE
NOMADEN PRODUKTU TIPIKOEKIN

Pertsona zaharren Bucráako Egun Zentroa, Tindoufeko Saharako errefuxiatuen eremuetan dagoena, Aaiumeko probintzian edo wilayan (Argelian) Udal batek finantzatua gaur egun etengabe funtzionatzen duen proiektu bakarra da.

2009 eta 2010 bitartean eraiki zen, Berangoko Udalaren finantzaketarekin, eta zonan egindako azterketa medikoei zerbitzu honen pertsona onuradunak, orokorrean, osasun-baldintza hobeean daudela ondorioztatu dute, zerbitzu hau erabiltzen ez duten beraien adineko beste pertsonekin alderatuta. “Dieta orekatuari eta eskaini-

tako higienerari eta zainketa medikoei esker izaten da”, ziurtatzen du alkatea den Anabel Landak. Landa pozik dago ekipamendua “egoera bikainean” aurkitzen delako.

40 zahar eta minusbaliatu psikiko baino gehiagok dutxak, bainu turkiarra, erizaintza zerbitzua eta aire girotua duten hiru gela dituzte beraien esku. Azken hauek garrantzitsuak dira udan izaten diren tenperatura altuei aurre egiteko, askotan 50 graduak gainditzen baitira. “Pertsona onuradun gehienak Mendebaldeko Saharan jaio ziren eta gizon gehienek Marokoren kontrako gatazkan gerra-zauriak sufritu zituzten”, zehazten du Landak. Horregatik dieta

berezia eskaintzen zaie, nomadak zirenean kontsumitu zituzten elikagai tipikoak sartzen dituen. “Gameluarengandik jatorria duten produktuak dira, bere esnea eta haragia adibidez”. Alkateak azaltzen duenez, tea ere kontsumitu ahal dute, Saharako familien artean hain sustrai sakoneko edari berezia. Instalazioak funtzionamenduan mantentzeak urteroko 18.000 euroko gastua ekartzen du. Han lau emakumek eta hiru gizonek lan egiten dute. Egindako zereginengatik diru sarrera bat lortzen dute, beraien familientzat Fronte Polisarioak errefuxiatu esparru hauetan banatzen duen janariaren osagarria dena.

Zentroak bere zerbitzuak eskaintzen ditu egunero arratsaldeko lau etararte. Onuradunei bazkari nagusi bat ematen zaie egunero, erizaindegi arretaz gain. Berangoko Udalak medikazio beharrezkoa ere bidaltzen du instalazio horietara. Garraio-zerbitzua ere eskaintzen da mugikortasun arazoak dituzten pertsona guztientzat edo urrun bizi direnentzat. Ertzaintzak doaintzan emandako bi furgonetetako batean garraiatzen dituzte.



Lankidetzarako laguntzak

Berangoko Udalak 9.000 euroko laguntza eman dio Aminata GKEari. GKE honek gizaldekako lanak egiten ditu Senegaleko Gandiol herrian, Afrikan. Ekarpen hau Sunu Xarit Aminata Kultur Zentroan eguzki-plaka fotovoltaikoak jartzeko erabiliko da.

Aldi berean, Vicente Ferrer Fundazioari ere laguntza eskaintzen ari zaio, urtean 10.000 euro ematen zaizkiolarik. Kasu honetan, laguntza “talist”era doa. Hauek Indiako beheko endira eta jasotako diruarekin etxebizitzak eraikitzen dituzte.



BERANGOK BERE NAGUSIEN ONGIZATEAREN ALDEKO APOSTUA EGITEN DU

PERTSONA NAGUSIEN UDAL BEHATOKIA MARTXAN JARTZEN DA TALDE HONEN BIZI-EGOERA ETA EZAUGARRIAK EZAGUTZEKO ETA DESKRIBATZEKO HELBURUAREKIN

Pertsona Nagusien Udal Behatokiak urteko lehen hilabeteetan herri burutu ziren egituratutako eta pertsonalizatutako elkarrizketa sozialaren bidez jasotako informazioa aztertzen du. Elkarrizketak senideen edo zaintzaileen aurrean egin ziren beti. Helburua arriskuan edo tratutxar, utzikeria edo isolamendu soziala egoeran dauden pertsonak identifikatzea da. Era berean, defizit kognitiboa duten pert-

sonak, gizarte-zerbitzuekin erlazioatutako beharrak eta beharra bereziak dituzten pertsonak ere identifikatu nahi dituzte.

Elkarrizketen emaitzak aztertu ondoren, 2017 honetan Udaleko Gizarte-Ongizateko Sailak burutuko dituen ehun ekintza inguru sortu dira. "Nabarmendu beharra dago ez dela inolako tratutxar egoerarik edo utzikierarik antzeman eta elkarrizketatutako %50ek zuzenki erantzun zutela beraien beharrak beteta dituzte-

la", azpimarratu zuen Gizarte-Ongizate Saileko arduradunak. Nerea Jimenezen arabera, "lehen une batean, Behatokia 80 urtetik gorakoei zuzenduta dago, baina analisi-taldearen adin tartea murriztearen posibilitatea aztertzen ari gara, adinagatik sortutako osasunerako zein arrisku sozialeko egoerak aurreikusitako ahal izateko eta hauei aurrea hartu ahal izateko".

Elkarrizketak urtero errepikatuko dira pertsona hauen bilakera eta joera ezagutzeko, bai gabeziarik ez izatea eta oinarrizko beharrak estalita izatea adierazten duten pertsonen kasuan bai aurreko urtean egoera aurkakoa goa aurkeztu zuten pertsonen kasuan ere.

PERTSONA NAGUSIEK ERORIKOAK EKIDITZEKO TAILERRA

65 urtetik gorako pertsonen erdiek, batez ere emakumezkoek, eroriko bat edo gehiago izaten dute urtean. Eroriko gehienak etxean gertatzen dira, edo etxearen inguruan, eta etxeko jarduerekin edo eguneroko bizitzako jarduerekin lotuta egon ohi dira, hala nola norberaren garbiketarekin, otorduak prestatzearekin, etxearen garbitasunarekin edo etxearen barruko edo etxetik kanpoko joan-etorriekin.

Hori dela eta Berangon jausiak ekiditeko tailerra antolatu da, adineko pertsonen lesio larriak eragin ditzaketen istripuak eta erorikoak saihesten laguntzeko.

Egun biko tailerra izan da burututakoa: maiatzaren 23an Berangoeta Kultur Etxean parte teorikoa eman zen eta maiatzaren 29an parte praktikoa Kirolgunean. Guztira, hogeita hamar bat pertsonen parte hartu zuten (gehienak emakumezkoak).

Saioetan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Osakidetzako lehen arreta (Berangoko Osasun Zentroko), Gorlizko ospitalea eta udal eta Mankomunitateko esparruko teknikariek parte hartu dute.

Tailerraren helburua adinekoek prebentzio-neurriak ikastea eta arrisku-egoeretan soluzioak hartzen jakitea izan da. Saio praktikoa, oso ohikoak diren egoerei nola aurre egin irakatsi zaie, adibidez eskailerak nola jaitsi eta igo, aulki batean nola eseri eta altxa, nola oheratu eta nola jaiki ohetik, eta eroriz gero nola jardun.

FAMILIA BATEN ZAIN JARRAITZEN DUTE

Amatza Auzoa, 5 lurreta (Goiuriko bidea). Bizkaia Astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00; 16:00-19:00; Zapatuak: 10:00-14:00

Ba al dakizu, gaur egun, Berangoko herriaren bertan batu diren 5 txakur daudela txakurtegiaren, adopzioaren zain? Interesaturik egonez gero, ikustera joan zaitezke, **ZAUNK** -era.



Izena: **Saiko**
Arraza: **Setter**
Sexua: **Arra**
Adina: **2 urte**
Ezaugarriak: **Lagunkoia eta aktiboa**



Izena: **Lolo**
Arraza: **Mestizo**
Sexua: **Arra, zikiratua**
Adina: **2 urte**
Tainua: **Txikia**
Ezaugarriak: **Lagunkoia**



Izena: **Ron**
Arraza: **Mestizo**
Sexua: **Arra**
Adina: **2,5 urte**
Ezaugarriak: **Lagunkoia eta maitekorra**



Izena: **Tak**
Arraza: **Setter**
Sexua: **Arra**
Adina: **3 urte**
Ezaugarriak: **Lagunkoia, baina aktibitatea behar du**



Izena: **Spike**
Arraza: **Spaniel Bretón**
Sexua: **Arra**
Adina: **3 urte**
Ezaugarriak: **Lagunkoia, beste txakur eta pertsonekin**

La iniciativa Libutruk se lanza para fomentar la lectura y las relaciones sociales

UNO DE SUS OBJETIVOS ES DAR VIDA A LOS LIBROS EN DESUSO

Libutruk nace como una iniciativa que fomenta la lectura y el intercambio de ideas a través de una biblioteca callejera. La intención es motivar a la lectura partiendo del verdadero interés de cada participante cuidando un espacio para recomendaciones y sugerencias". La iniciativa, que abre en el kiosko situado frente a la Kultur Etxea de Berangoeta,

está dirigida a todas las personas sin distinción de edad.

Se trata de dar vida a libros en desuso, activar relaciones sociales entre vecinos y vecinas, así como proporcionar una perspectiva más amplia sobre la lectura y lo que ésta implica. La biblioteca callejera dispone de diversos talleres y colabora con distintas asociaciones culturales, comercios y colegios.



La Sanjuanada tiene acento solidario

Venderán pañuelos a 2 euros para recaudar dinero para Cáritas

La Sanjuanada de 2017 tiene acento solidario, porque el día 23 se venderán pañuelos al precio de 2 euros para que el dinero recaudado se destine a Cáritas. Como en ediciones anteriores, la hoguera que marca la llegada del solsticio de verano se prenderá en la campa de Lantzarte, en una fiesta que atrae a cientos de personas cada edición.

Los actos empezarán a las siete de la tarde, con una verbena infantil que se encargará de animar el grupo "Begira Taldea". Niños y niñas también podrán disfrutar de la chocolatada. A las ocho de la tarde, se procederá al encendido de la hoguera y habrá hamburguesas y sidra como tentempié. La actuación de DJ Xaibor pondrá fin al festejo de San Juan, con una actuación que combina bailes y canciones para animar a público.



OTRO ÉXITO DE LA FERIA ARTESANA

Simon de Otxandategi volvió a repetir otro éxito de público en la pasada edición de la Feria Artesana y Agrícola, que prima la calidad de los productos y que, además de constituir un escaparate para los baserritarras locales y de Uribe Kosta, es una cita obligada para muchas personas de la comarca a las que les atrae este tipo de eventos.



INFORMACIÓN DE EMPLEO

En próximas fechas se pondrá en conocimiento de las vecinas y los vecinos de Berango la forma en la que acceder a los puestos de trabajo que oferten las empresas que se asentarán en el nuevo polígono de actividades económicas. Para darlo a conocer a todas las personas interesadas, el Ayuntamiento realizará un buzneo indicando el sistema de selección que llevará a cabo cada una de las empresas. En cualquier caso, es recomendable que las personas interesadas en encontrar un empleo tengan actualizado su currículo personal en el Behargintza o Centro de Empleo, situado en Karabiazpi, número 1. Se anuncia que algunas empresas tienen previsto abrir a partir del próximo septiembre.

Cinco coros animarán el frontón el 18 junio

Hasta cinco corales actuarán el 18 de junio junto al grupo de canto de Apnabi, que es la asociación de Autismo de Bizkaia que trabaja para garantizar todos los derechos de las personas con trastornos de autismo y su espectro.

El concierto que organiza Simon de Otxandategi arrancará a las 13:00 horas en el frontón municipal. Aparte del coro de los anfitriones intervendrán las agrupaciones vocales de los hogares del jubilado de Berango y Sopela, y el coro de la Asociación de Mujeres de Berango.



GIRO ALAIA ERDI AROKO AZOKAN

Su-ikuskizunak, giroa, koloreak, musika, dibertsioa... Berangoko Erdi Aroko Azokak arrakasta handia lortu zuen berriro ere eta publiko ugaria erakarri zuen, salmenta onak lortuz. Eguraldi onak pertsona ugari Berangora hurbiltzera animatu zuen, bai herritik bertatik bai Uribe Kostako beste herri hurbiletatik ere. Giro ona ekitaldi erakargarri honetako azpimagarriena izan zen. Kanpamentua osatzen duten 200 pertsona inguruk parte hartu zuten azokan, gehienak musikariak, aktoreak eta artisauak direlarik.



AMBIENTE ANIMADO EN EL MERCADO MEDIEVAL

Espectáculos de fuego, animación, música, colorido, diversión... El Mercado Medieval de Berango volvió a triunfar al congregar a numeroso público y registrar buenas ventas. El buen tiempo favoreció que muchas personas se acercaran a Berango, tanto desde el pueblo como de otras localidades cercanas de Uribe Kosta. El buen ambiente fue la clave de este atractivo evento en el que participan unas 200 personas que forman el campamento, la mayoría músicos, actores y artesanos.

